



Busturiko
Udala



Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Busturiko Udaletxea

EGUNA / FECHA: 15/1/2015

HASIERA / INICIO: 20:15

AMAIERA / FINAL: 20:20

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATESA/ALCALDESA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (Bildu)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Jone Miren Arrasate Urkiaga (Bildu)

Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate andrea buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udaltzatzen idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate andrearen aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez. De orden de la Sra. Alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Batzordeak aho batez onartu zuen 2014ko abenduaren 17ko saioko akta.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 17 de diciembre de 2014.

2.- Hitzarmena Lurguaia Fundazioarekin.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Lurguaia Fundazioarekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea, 2015. urtean natura-ondarea eta bioaniztasuna, oro har eta helburuen arabera, kontserbatu, kudeatu eta zabaltzeko.

2.º.- Convenio con Lurguaia Fundazioa.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el convenio de colaboración a suscribir con Lurguaia Fundazioa, para la conservación, la gestión y la divulgación del patrimonio natural y la biodiversidad en sentido general y por objetivos, durante el año 2015.

3.- Hitzarmena Hamaika Bilbo Telebistarekin.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Hamaika Bilbo Telebistarekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea, 2015. urtean udalerrian antolatzen diren ekitaldien gaineko telebistako erreportajeak egin ditzan.

3.º.- Convenio con Hamaika Bilbo Telebista.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el convenio de colaboración a suscribir con Hamaika Bilbo Telebista, para la elaboración de reportajes televisivos sobre diversos eventos que se realicen en el municipio durante el año 2015.

4.- Hitzarmena Biscaytikekin.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Biscaytikekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea, kontabilitate-eta aurrekontu-modulua ezartzeko.

4.º.- Convenio con Biscaytik.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el convenio específico a suscribir con la Fundación Biscaytik, para la implantación del módulo de contabilidad y presupuestos.

5.- Hitzarmena Biscaytikekin.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Biscaytikekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea, faktura elektronikoko modulua ezartzeko.

5.º.- Convenio con Biscaytik.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el convenio específico a suscribir con la Fundación Biscaytik, para la implantación del módulo de factura electrónica.

6.- Eskaerak Bizkaiko Foru Aldundiari.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Bizkaiko Foru Aldundiari ondokoak ezartzeko eskaerak egitea:

- 1.- San Antonioko aparkalekuan, autokarabanentzako aparkalekua.
- 2.- San Antonioko biribilguneko Bizkaibusen geltokietan, markesinak.

6.º.- Peticiones a la Diputación Foral de Bizkaia.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó formular las siguientes peticiones a la Diputación Foral de Bizkaia:

- 1.- Aparcamiento de auto-caravanas en el parking de San Antonio.
- 2.- Instalación de marquesinas en las paradas de Bizkaibus de la rotonda de San Antonio.



3.- Paresi eremuan abiadura mugatzeko seinaleztapen horizontala.

4.- San Kristobal auzoko BI-2235 errepidean, biribilgunea (eraiki).

3.- Colocación de señalización horizontal de limitación de velocidad en la zona de Paresi.

4.- Construcción de la rotonda de San Cristóbal en la BI-2235.

7.- P. P. D.en idazkia.-

Jarraian, P. P. D.k eskulan-ikastaroan baja eman dakion aurkeztutako idazkia irakurri zen; eta ikastaroen antolaketaren inguruan onartu eta argitaratu ziren arauetan ez zenez zehaztu ikasleek urte osorako ematen zutela izena eta ez zenez debekatzen ikastaroan baja ematea, Tokiko Gobernu Batzordeak aipatu herritarraren baja onartu zuen.

7.º.- Escrito de P. P. D.-

Seguidamente se dio lectura al escrito presentado por P. P. D. solicitando que se le dé de baja en el cursillo de manualidades, y considerando que en las normas que se aprobaron y publicaron sobre la organización de los cursos no se precisaba que los alumnos se inscribían para todo el año ni se prohibía que durante el desarrollo de los mismos los inscritos se pudiesen dar de baja, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la baja de la vecina citada.

8.- M. A. M. A.en eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen M. A. M. A.ek jostintza-ikastaroan izena emateko aurkezturiko eskaera, ikastaroan lekua badagoela kontuan hartuta.

8.º.- Solicitud de M. A. M. A.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición de M. A. M. A. para inscribirse en el cursillo de costura, a la vista de que en el mismo hay plazas disponibles.-

9.- Busturia Kirol Taldearen idazkia.-

Ikusita Busturia Kirol Taldeak aurkezturiko idazkia, aurreko irailean antolatutako futbol-lehiaketa dela-eta Udalaren musika-ekipoa erabiltzeko gordailututako 50 €-ko fidantza itzul dakion eskatzeko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen eskaera.

Idazki berean, Busturia Kirol Taldeak jakinarazten du uko egiten diola jasotzeke duen diru-laguntzari, ezin duelako aurkeztu izandako gastuen zuriaketa dokumentala.

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen jakinaraztea egoera hori onartezina dela eta Udalak diruz lagundutako jarduera guztiak dokumentu bidez zuritu behar direla.

9.º.- Escrito del Busturia Kirol Taldea.-

Visto el escrito presentado por el Busturia Kirol Taldea, solicitando la devolución de la fianza de 50 € depositada para la utilización del equipo de música del Ayuntamiento, con motivo del torneo de fútbol organizado el pasado mes de septiembre, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición.

En el mismo escrito, el Busturia Kirol Taldea informa de que renuncia a la parte de subvención pendiente de cobrar, ya que no pueden presentar justificación documental de los gastos realizados.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó informarles de que esta situación no es admisible, y de que todas las actividades subvencionadas por el Ayuntamiento deben ser justificadas documentalmente.

10.- J. A. M.ren idazkia arrain-salmentaren gainean.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen J. A. M.k aurkezturiko eskaera, udalerriko auzoetako kaleetan arraina saltzeko, hala nola proposamena egitea eskatzaileari udan Udalak antolaturiko asteroko azokara ere joan dadin.

10.º.- Escrito de J. A. M. sobre venta de pescado.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de J. A. M., para realizar venta ambulante de pescado en los barrios del municipio, sugiriéndosele que, en el periodo veraniego, acuda también al mercado semanal organizado por el Ayuntamiento.

11.- M. S.ren lokal-eskaera.-

11.º.- Solicitud de M. S. para utilización de local.-



Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen M. S.k Sorturen izenean eta haren ordezkari aurkeztutako eskaera, Kultur Etxeko areto nagusia bilerak egiteko erabiltzeko, ondoko egunotan:

- urtarrilaren 27an, 19:00etan.
- otsailaren 3, 10, 14, 16 eta 17an, 19:00etan.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición de utilización del salón de actos de la Casa de Cultura, realizada por M. S., en nombre y representación de Sortu, para realizar reuniones los siguientes días:

- 27 de enero a las 19,00 horas.
- 3, 10, 14, 16 y 17 de febrero a las 19,00 horas.

12.- Horma-hilobiaren esleipena.-

Ikusita Funeraria Izaro enpresak M. P. C. M. ren izenean eta haren ordezkari aurkeztutako idazkia, Udal Hilerrian horma-hilobia bat eman dakion, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen eskaera.

12.º.- Concesión de nicho.-

Visto el escrito presentado por la Funeraria Izaro, en nombre y representación de M. P. C. M., solicitando la concesión de un nicho en el Cementerio Municipal, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la petición.

13.- Diru-laguntza eskaera euskara-ikastaroagatik.-

Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen euskara-ikastaroa egiteagatik hurrengo diru-laguntzak ematea:

- | | |
|-------------|-----------|
| - I. C. M.: | 197,65 €. |
| - T. U. C.: | 182,25 €. |
| - L. U. G.: | 92,50 €. |
| - I. O. S.: | 197,65 €. |

13.º.- Petición de subvención por curso de euskera.-

Vista la documentación presentada, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder las siguientes ayudas económicas por realizar cursos de euskera :

- | | |
|-------------|-----------|
| - I. C. M.: | 197,65 €. |
| - T. U. C.: | 182,25 €. |
| - L. U. G.: | 92,50 €. |
| - I. O. S.: | 197,65 €. |

14.- J. A. M. ren ibilgailuaren zergaren salbuespena.-

Ikusita J. A. M. k aurkezturiko idazkia, O-6647-AU matrikuladun bere jabetzako ibilgailuak, 25 urtetik gorako antzinatasuna duen heinean, 2015. urtean eta hurrengoetan Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan salbuespena izan dezan eskatzeko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen eskaera, Zerga arautzen duen Udal Ordenantza Fiskalaren laugarren kapituluaren ezarritakoaren arabera.

14.º.- Exención del impuesto del vehículo de J. A. M.-

Dada cuenta del escrito presentado por J. A. M., por el que solicita la exención, para el año 2015 y sucesivos, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, del turismo de su propiedad, matrícula O-6647-AU, por ser un vehículo con una antigüedad mínima de 25 años desde la fecha de su fabricación, en aplicación de lo dispuesto en el artículo cuarto de la Ordenanza Fiscal municipal reguladora del Impuesto, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la solicitud presentada.

15.- Hirigintza-baimenak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txosten tekniko eta juridikoak ikusita, aho batez erabaki zuen honako hirigintza-baimenak ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horiek eskatzaileari jakinarazi behar izanda:

- 1.- M. B. U. A. (35/14 Txost.), lehen erabilerako lizentziarako, San Kristobal auzoan.
- 2.- B. M. H. (61/14 Txost.), Axpe auzoko 101. ean oilategia konpontzeko, 1.731,00 €-ko aurrekontuarekin.
- 3.- V. I. A. (1/15 Txost.), udal hilerrian panteoia eraikitzeko, 6.200 €-ko aurrekontuarekin.
- 4.- R. M. N. (2/15 Txost.), Axpe auzoko 158.eko 3. ezkerrean sukaldea eta komuna birgaitzeko, 5.000,00 €-ko aurrekontuarekin.

Halaber, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen

15.º.- Licencias urbanísticas.-

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes jurídicos y técnicos emitidos, acordó, por unanimidad, conceder las siguientes licencias urbanísticas, que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en los mismos, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:

- 1.º.- M. B. U. A. (Expte. 35/14), para licencia de primera ocupación, en el barrio de San Cristóbal.
- 2.º.- B. M. H. (Expte. 61/14), para reparación de gallinero, en el barrio de Axpe, 101, con un presupuesto de 1.731,00 €.
- 3.º.- V. I. A. (Expte. 1/15), para construcción de panteón en el cementerio municipal, con un presupuesto de 6.200 €.
- 4.º.- R. M. N. (Expte. 2/15), para rehabilitación de cocina y baño, en el barrio de Axpe, nº. 158-3.º Izda., con un presupuesto de 5.000,00 €.



Hidroforest, S.L. enpresari behin-behineko baimena ematea Santarena baserriko lursailean beirazko modulu bat jartzeko, betiere instalazioaren behin betiko baimena izapidetzen badu, gehienez sei hilabeteko epea izanda eta Udal honi, behin betiko baimena emango ez balitzaio, berau desmuntatuko dela bermatuko dion 500 €-ko fidantza gordailutu behar izanik.

Eta besterik gabe, Alkate andereak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate andereak eta egiaztatzen dudana idazkariak sinatuta.

Alkatea/La Alcaldesa,

Fdo: Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

Asimismo la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar a Hidroforest, S.L., a la colocación provisional de un módulo acristalado en la parcela del caserío Santarena, en tanto en cuanto procedan a tramitar la autorización definitiva de la instalación, estableciéndose un plazo máximo de seis meses, y debiendo depositarse una fianza de 500 € que garantice a este Ayuntamiento el desmontaje de la misma en el caso de que no se le concediese la licencia final.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. Alcaldesa y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez